

Mutuak lantokietatik kanpo!

Aurtengo apirilaren 28an, lan-segurtasun eta -osasunaren egunean, ELAK bereziki salatu nahi du Mutualitateen Legea, joan den urtarrilaren lehen indarrean sartu dena.

Lege honen eraginak...

+ **Mutualitateentzako lan-eremu zabalagoa.**

Osasun sistema pribatizatzeke beste urrats bat da legea. Ezin dugu ahaztu mutualitateak Gizarte-Segurantzaren kudeaketan lankide diren erakunde pribatuak direla.

Erreformaz erreforma, gero eta eginkizun gehiago bereganatu dute, lehenago osasun-sistema publikoak betetzen zituenak, batik bat gertakari arrunten gestioan.

- **Sistema publiko gutxiago.**

Bitartean, osasun-sistema publikoak murrizketak pairatzen ditu.

+ **Mutualitateentzako botere handiagoa gertakizun arrunten eragindako bajetan.**

Enpresak mutualitatearekin gaixotasun arrunten bajak kudeatzea hitzartu duen kasuetan, bitarteko gehiago jarriko dira bajak lehen egunetik bertatik gaixoaldi horiek laburtzeko: osasun-zerbitzu publikoei proposamenak egin ahal izango dizkio alta medikua eman dezaten, azterketa medikuak egitera deitu, langilearen historia klinikoa ikusi...

Orain arte osasun-sistema publikoko pertsonal medikuak erantzuten ez bazuen alta ez zen behin betikoa. Orain, bost eguneko epean erantzunik ez bada, INSSen Ikuskaritzak esku har dezala eska dezakete, eta honek lau egunetan erantzun beharko du.

- **Osakidetzako eta Osasunbideko pertsonal medikuaren jarduera mugatzen da.**

Praktikan mutualitateek behatuko dute sistema publikoan diharduen pertsonal medikuaren lana; honek presio handia jasango du alta-proposamenei erantzuna lehenbailehen eman diezaion.

+ **Patronalarentzako botere handiagoa.**

Mutualitateak erakunde patronalak dira, beraz, hauetako kide diren enpresek kudeatuak, eta zuzendaritza enpresa munduak izendatzen du. Horregatik jokatzeko dute enpresaburuekin elkar hartuta, dagokion araudia interpretatu eta aplikatzerakoan.

- **Langileen osasunaren babes txikiagoa.**

Mutualitateen jardunbidearen oinarria ekonomizista da. Hau langileen osasunaren babesaren kaltetan izango da.

+ **Diru publiko gehiago mutualitateentzat.**

Enpresa eta mutualitatea ados jarriz gero, honek jaso ahal izango du kotizazio sozialen beherapenaren edo "bonus"aren zati bat; hau izateko eskubidea du enpresak bere lan-istripu indizea sektoreko batez besteko mailaz azpitik dagoenean.

- **Mutualitateen abusuen aurrean babes eskasagoa.**

"Bonus" a jasotzeko -hau finean Gizarte-Segurantzak erabakitzen du- mutualitatearen txosten bat behar da. Gainera, sektoreko siniestralitate indizea erabakitzerakoan mutualitateek zer esan handia dute, eurak baitira lan-istripuak artatzen dituztenak eta lan-gertakaria izan den ala ez ebazten dutenak.

Mutualitateen praktika irregularrak gehitu egingo dira: gaixotasunen laneko jatorria ukatuz, behar ez bezalako altak emanez...

Erreforma hau enpresetan geldiaraz dezakegu

Negoiazio kolektiboa da gure esku dugun tresna bakarra egoera honi aurre egiteko.

Mutualitateek gure enpresan botere handiagoa lortzea eragozteko posible da, exijituz gero gaixotasun arrunteko bajen kudeaketak:

- sistema publikoan jarrai dezan
- sistema publikora itzul dadin, mutualitate baten esku jarri badute.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA